

LEHENENGO GAIA: KOROA. ESTATUKO BURUZAGITZA

(Liburuko 2.bolumena, 26.kapitulua 499-507.or aurrera, lehendabiziko hiru pasarteak irakurri)

1.1. KOROA ETA ESTATUAREN BURUZAGITZA. MONARKIA PARLAMENTARIOA

Konstituzioaren irekiera artikulua: Monarkia parlamentarioa da Estatuko molde politikoa (1.3.artikulua). Guri interesatzen zaigu aztertzea eta ulertzea zer den monarkia parlamentarioa, honetan ikus dezakegu, monarkia parlamentarioa bilakaera baten ondorio dela (Europar gertatu den bilakaera bat hain zuzen ere). Honen harira esan dezakegu manualaren egileek esaten duten gauza bat gehiegizkoa dela: "Espainiar Konstituzioa irudikatzen duen monarkia parlamentarioa da Europako Monarkia Parlamentariorik aurreratuena hain zuzen ere", baina hori iritzi bat da (soilik ikusi beharra dago herrialde eskandinabioen eta Ingalaterrako Monarkia Parlamentarioak). Baina zer da Monarkia Parlamentarioa? Gaur egun Europar barreiatuta dagoen Monarkia mota, Iraultza liberalaz geroztik sistema politikoez jasan duten bilakaeraren ondoren sortu dena.

Baina zertan datza Europar emandako bilakaera hori monarkia parlamentariora ailegatzeko? Hain zuzen ere, monarkia absolutistatik, parlamentuak gero eta gehiago bilakaera luze batean erregeak zituen botere guztiak kentzen hasi zitzaizen eta parlamentuak bere eskuetara ekarri zituzten erregearen botereak, bilakaera historiko horren arabera lehia gertatzen da (parlamentu vs errege) eta lehia horretan parlamentua gailendu zen, erregeari boterea kentzen gaur egun dugun monarkia parlamentariora heldu arte, non erregearen botereak eta eginkizunak sinbolikoak diren eta ez dituen inolako botere politikorik. Hasieran erregeak zituen botere guztiak (monarkia absolutua), beraz Monarkia Parlamentarioan ikusi ahal dugu erregea irudi sinbolikoa soilik duela zeren eta parlamentuak baitu boterea (botere hori botere politikoa da, hain zuzen), sistema parlamentarioan bikote batek du boterea parlamentua eta gobernuak. Sistema parlamentarioa da, sistema bat non Estatu Buruzagia (erregea, errepublikako presidentea...) botere sinbolikoa soilik duen eta botere politikoa parlamentu eta gobernuaren eskuetan dagoen. Erregeak soilik forma ematen dio erabaki politikoei (figura sinbolikoa).

Espainiar Konstituzioak ezartzen ditu erregearen betekizunak (II.tituluan, 56-65 artikulua bitartean), erregea sinbolo politikoa eta betekizun politikoa ditu, baina benetako botere politikorik gabe. Tradizioaren arabera gordetako erakundea da koroa, baina lehen izan zuen botere politikoa erabat galdu duena.

Konstituzioaren arau eraginkorrak dira eraginkortasun zuzena duten arauak (noiztik noiz egingo dira hauteskundeak, adibidez), baina Konstituzioan ere daude arauak zeintzuk ez eraginkorrak diren (adibidez: Erregearen titulua), horrek esan nahi du arazorik gabe Konstituzio batetik desagertu daitekeela?

Oso errotuta badaude gizartean nolabaiteko eragina izan dezakete gizartean (nahiz eta eragin juridiko zuzenik ez izan, zilegitasuna ematen duten arauak izango lirateke, indarra erabili behar izan gabe erraztasun osoarekin herriak onartuko dituztenak).

Walter Bagehot (*The English Constitution*): Konstituzioaren *dignified parts* “those which bring it force”, haien bidez Konstituzioak “gains authority”. Gaur egun, herrialde batzuetan beste batzuetan baino gehiago, koroak garrantzi handia du (Erresuma Batuan, adibidez) nahiz eta botere politikorik ez eduki. Hori gertatzen da jendeak benetan uste duelako errege edo erreginak kohesioa ematen diola sistema politikoari. Hori da Walter Bagehot-ek esaten zuena *The English Constitution* liburuan. → Eraginkortasun zuzena/sendotasun politikoa/ hau da, indarra erabili gabe herriak onartuko duen arau multzoa (Dignified Parts, deitua).

Ez dago konstituzio demokratikorik alako araurik gabe ezarri daitekeena (konstituzioari zilegitasuna ematen dioten arauak dira beraz, arau ez eraginkorrak). Argi dago, bestalde, arau horiek islatzen dituzten printzipioak krisian sar daitezkeela gizartearen sektore zabal batek horren kontra dagoenean, hots, sistema politikoa bera krisian sartzen denean. Azkenean, sistema parlamentaristetan monarkia zein errepublika izan, estatu buruzagiak soilik ditu botere sinbolikoak. Horrenbestez errege edo presidente izan alde handirik ez dago. Aldeak: erregea bizi osorako kargua da, jaiotzekoa eta presidentearena aldiz, ez.

Erregearen boterea sinbolo hutsa bat da Espainiar Konstituzioan; adibidez Konstituzioak esaten duenean erregea dela indar armatuen burua sinbolo hutsa da, nola benetan indar armatuen ekintzen aurrean erantzukizuna duena gobernua da, justizia erregearen izenean ematen denean esatean, zergak erregearen izenean biltzen direla esatean... (sinbolismo hutsa da).

1.2.KOROAK GURE KONSTITUZIOAN DITUEN BEREZITAZUNAK

Espainiar konstituzioak definitzen du zein monarkia mota izango den Espainiar estatukoa, gero konstituzioak berak arautuko duena, hau Monarkia Parlamentarioa da hain zuzen ere.

Monarkia Parlamentarioa definitzen duen artikulua atariko tituluan izatea (1.3.artikulua) ondorio garrantzitsuak ditu, konstituzioa aldatzearen inguruan hain zuzen, hau da, konstituzioa erreformatzeko orduan, Espainiar Konstituzioaren 168.artikulua erabili beharra dago (zeren eta hitzaurrea aldatzeko berrespen oso bat beharrezkoa da). Bi modu ditu konstituzioak erreformatzeko bat zurruna (168.artikulua) eta bestea malguagoa (167.artikulua). Atariko titulua erreformatu nahi denean erreformatzeko modu zorrotza erabili behar da nahitaez, hau esan nahi du, gure konstituzioan monarkia oso babestua dagoela. Ikusi dugu Monarkia Parlamentarioa bi tokitan ezartzen duela Espainiar Konstituzioa (1.3.artikulan eta II.tituluan), irakurtzen badugu 168.artikulua ikusiko genuke prozedura zurruna erabili behar dela bi hauetako edozein erreformatu nahi badira (beste atal batzuk

erreformatzeko ere hau erabili behar da, hala nola oinarrizko eskubide eta askatasunak erreformatzeko). Monarkia babestu nahi baldin bazen nahikoa zen atariko tituluan aipatu kontuan hartzen 168.artikulua esaten duena.

Konstituzioan gertatu den arazoa izan da Monarkia Parlamentarioa babestu nahian ez da bakarrik Monarkia Parlamentarioa babestu baizik eta monarkia hau babestu da (monarkia honek bere ezaugarri guztiekin) bere garaian esaten zen "Juan Karlos-en monarkia", garai hartan babestu nahi zen Juan Karlosen monarkia hau, baina II.titulua hain ondo babestean, horrek arazoak sortzen ditu gaur egun, nahiz eta lehen arazorik ez zituen eman. Honen atal batzuk; adibidez 57.1.artikulua (erregea izateko gradu berean gizona gailentzen da emakumearen aurrean); konstituzio teoriatik ikusita galdera izan daiteke: Gertatu ahal da konstituzio batean bi arau kontrajartzea? Konstituziogileak salbuespen bat ezartzen dutenean bai egin daiteke (hori izan da konstituzio teorian historikoki eman den erantzuna). Hemen kontrajarriak daudenak dira 57.1.artikulua (gizonak emakumeen aurrean ipintzean koroa heredatzeko) eta 14.artikulua (ezin da inor baztertu sexuagatik, arrazagatik, jaiotzagatik...)

Erregea, Estaturua da, baina betearazteko boteretik gabea, nola sistema parlamentario baten barnean botere politikoa Parlamentuaren eta Gobernuaren arteko harremanetan gauzatzen eta bideratzen da. Erregeak soilik botere sinbolikoak beteko ditu. Estatu burua sistema parlamentarioetan eta baita ere sistema presidentzialistetan konstituzioaren mende kokatzen da, beraz lege antolamenduaren arabera gauzatu beharko ditu bere ekintzak (lege antolamenduaren barruan konstituzioa gorentasuna izango du), konstituzioan dago Estatu buruari buruz arautuko dena; Espainiar estatuan erregea izango da estatu burua. Gorte Nagusiek aldarrikatzen dute Erregea eta honek zin egin behar du "leial beteko dituela bere eginkizunak, Konstituzioa eta legeak gordeko eta gordearaziko dituela eta herritarren nahiz autonomia-erkidegoen eskubideak errespetatuko dituela" (Espainiar Konstituzioaren 61.1.artikulua). Parlamentuek lortu zutenean erregeak konstituzioak zin egitea aurrerapauso handi bat egin zen nola erregearen boterea legearen menpe geratu zen, lehen ez bezala zeren eta esaten zen erregeak bere zilegitasuna jainkoarengatik jasotzen zuela eta ez zegoela edonolako botere politikoen menpe. Erregea gaur egun bakarrik ditu konstituzioak ematen dion "botereak"; Erregea Estatu burua da (Espainiar Konstituzioaren 56.artikulua), estatuaren batasunaren eta iraupenaren ikurra, estatuaren ordezkari gorena nazioarteko harremanetan. Erregearen pertsona bortxaezina da eta erantzukizunetik libre dago (Espainiar Konstituzioaren 57.3.artikulua). Estatuaren ordezkari gorena dela nazioarteko harremanetan sinbolikoa da zeren eta erregea ez doa nazioarteko bileretara baina bai sinatzen ditu erabakiak beharrezkoa denean. Sistema guztietan Estatu burua, estatu burua den bitartean bortxaezina izango da. Bortxaezintasuna kargu bitartekoa bada, kargua uztean karguan egindakoagatik eska dakioke estatu buruari erantzukizunik?

Arlo publikoan egindakoagatik ez dago inolako dudarik ere ez duela erantzukizunik, Espainiar konstituzioaren 57.3.artikulan esaten den moduan

“erregearen pertsona bortxaezina” kontuan hartuz, erregearen erantzukizuna beste organo batzuk hartuko dute.

Erregeak bere bizitza pribatuan egiten dituen ekintzetan ez dago sartzerik, bizitza publikoan bakarrik. Hori Konstituzioak arautzen/agintzen du. Erregearen pertsonak, hala ere, ez du inongo erantzukizunik; sistema presidentzialistetan presidentearekin gertatzen den bezala. Sistema guztietan beraz, Estaturua bortxaezina da.

Egin daitekeen gauza bakarra epaiketa politikoa izango litzateke (Impeachment) pertsona hori kargutik kentzeko (Nixon-i AEBetan gertatu zitzaion bezala).

1.3.ERREGEAREN BETEKIZUNAK

Erregearen betekizunak, ezinbesteko betebeharrak dira, nahitaez egin beharrekoak, erabakitzeke aukera politikorik gabe.

- Erregeak ez du erantzukizunik egiten duenagatik
- Erregearen egiteen “ber-izenpetzea”: Erregeen egiteek balioa izateko dagokion agintari baten sinadura izan behar dute Erregearenarekin batera.

Erregearen erabakiak balio juridikoa izateko beste pertsona baten sinadura eraman behar du bere alboan.

Erregearen egintzak “berretsita egongo dira beti eta ez dute baliorik izango berrespen hori gabe” (Espainiar Konstituzioaren 56.3.artikulua), hau da, gobernuko presidente edo dagokion ministroaren sinadurarik gabe ez da baliozkoa izango; hau horrela da nola lehen esan bezala erregeak gaur egun dituen botereak botere sinbolikoak dira eta ez botere politikoak.

- Salbuespena: errege-etxeko kide zibil eta militarren izendapena (Espainiar Konstituzioaren 65.2.artikulua)
- Erregearen egiteek ber-izenpetzen dituzte, oro har, Gobernuko Presidenteak eta Ministroek, eskumena dagokienean (Espainiar Konstituzioaren 64.1.artikulua)

Erregearen pertsona bortxaezina izatea esan nahi du erregea izan zen bitartean egindakoari buruz ezin dakiokela erantzukizunik eskatu edo errege kargua ustean erantzukizuna eskatu ahal dakiokela.

Erregeari konstituzioak bere eskuetan betebeharrak batzuk jartzen dizkio; baina da erregeak berak erabakitzen duena nola egin edo dira beste organo/erakunde batek erabakitzen duena eta erregeak horri itxura formala ematen dio? Monarkia parlamentarioan erregeak bakarrik itxura formala ematen dio; hau da erregeak ez du ezertaz ere erabakitzen. Erregeak egiten duena indar juridikoa izateko, konstituzioak ezartzen duen beste pertsonarekin batera egiten behar du; horri esaten diogu ber-izenpena. Horregatik esaten dugu erregeak egiten duenagatik erregeak ez duela erantzukizunik, aldiz bai izango du erantzukizun juridiko eta

politikoa erregearekin batera erabaki hori sinatu duen pertsona. Honen inguruko arazoak hurrengo hauek ditugu:

- Erregearen betekizunak, ezinbesteko betebeharrak dira, hau da, nahitaez egin beharrekoak, erabakitzeko aukera politikorik gabe. Adibidez; duela urte batzuk Belgikako Balduino Erregea Espainiako Fabiola batekin ezkondua zegoen (oso erlijiosoak ziren), orduan Belgikako parlamentuan abortuaren lege bat onetsi zuten eta erregeak esan zuten ez zuela hori sinatuko zeren eta bere borondatearen kontra zihoan; beraz, egoera honetan konstituzio arazoa sortu zen, eta hau konpentzeko nola konpondu genezake? Une hartan Belgikako Parlamentuan esan zuten erregea gaixoa zegoela (gezurrezkoa zen hau, noski) eta bi egunetan ezindua izan zuten erregea, orduan parlamentuak egindako lege hori erregearen ber-izenpenik gabe aurrera atera zen eta legea estatuko aldizkari ofizialean argitaratu zenean “osotu” zen erregea. Belgikako korearen indarra gutxitu egin zen garaian baina ez dirudi horrek luzera eragin handirik izan duenik. Bigarren arazo bat; zer gertatuko da horrelako arazoa gertatzen denean? Zer gertatuko zen erregeak egiten ez badu konstituzioak esaten diona? Zer gertatuko zen sistema politikoaren mamia kolokan jarriko balu erregeak betebeharrak bat betetzen ez badu?
Horrelako arazo bat monarkiaren sinesgarritasuna kolokan jar zenezake. Horrek erakusten baitu nola erregeak dituen eginkizunen artean (garrantzitsuenetako bat parlamentuetako legeak berrestea bere sinadurarekin; formaltasun hutsa). Suedian alako zerbaite gertatu zen eta konstituzioa aldatu zuten (monarkia parlamentario bakarra izan da hori egiten; erregeari kendu zioten parlamentuak egindako legeak bere sinadurarekin berresteko eskubidea/boterea/ahalmena). Legeari indarra ematen diona da parlamentua.
- Erregeak ez du erantzukizunik egiten duenagatik
- Erregearen egiteen “ber-izenpetzea”: Erregeen egiteek balioa izateko dagokion agintari baten sinadura izan behar dute Erregerenarekin batera.
- Erregearen egintzak “berretsita egongo dira beti (...) eta ez dute baliorik izango berrespen hori gabe” (Espainiar Konstituzioaren 56.3.artikulua). Oso eztabaidatua izan da, momentuz ez ditu arazo politiko larririk sortu, baina sortuko balitu beste gauza bat izango zen eta horri benetako soluzio bat bilatu beharko zen agian Suedian egin zen moduko aldaketa konstituzional batekin.
- Salbuespena: errege-etxeko kide zibil eta militarren izendapena (Espainiar Konstituzioaren 65.2.artikulua)
- Erregearen egiteek ber-izenpetzen dituzte, oro har, Gobernuko Presidenteari eta Ministroei, eskumena dagokienean (Espainiar Konstituzioaren 64.1.artikulua). Nortzuk dira erregeak sinatzen dituen dokumentuak ber-sinatu behar dutena? Oro har gobernuko presidentea, konstituzioak espresuki ezer kontra esaten ez duenean; baina baita ere ministroak dira askotan ber-sinatzen dituztenak (aginduak).

- Salbuespena: Diputatuen Kongresuari Gobernoburu izateko hautagaia proposatzen duenean eta Ganberak inor hautatzen ez badu, Ganberak itxi eta hauteskunde berrietarako deia Diputatuen Kongresuko Presidenteak berretsiko du (Espainiar Konstituzioaren 99.1. eta 99.5.artikuluak).
- Erregearen egiteen erantzukizuna dagokio haiek ber-izenpetzen dituenari (Espainiar Konstituzioaren 64.2.artikulua). Erregeari presionatu ahal duen bakarria kargua husteko presio soziala (iritzi publikoa) izango da.

Botere betearazlearekin lotutako eginkizunak:

- Erregeak Diputatuen Kongresuari proposatzen dio Gobernoburu izateko hautagaia (Espainiar Konstituzioaren 62.d.artikulua). Aldez aurretik kontsultak egin behar ditu Kongresuko talde politikoen ordezkariekin edo aholkua eskatu halako ordezkariari (Espainiar Konstituzioaren 99.artikulua).
Prozedura hau guztiz sinboliko eta formal izan daiteke, adibidez alderdi batek gehiengo absolutua lortzen duenean ez da beharrezkoa inolako kontsultarik egin alderdia ea nola ikusten duten egoera bere alderdiko burua gobernoburu izateko proposatzeko tramiteak hasteko nolatan alderdi batek gobernu jada lortuta du bere alderdiko burua gobernoburu izango dela parlamentuari galdetu aurretik zeren eta parlamentuan gehiengo absolutua dute. Sistema parlamentario batean ez da erregeak esan behar diena alderdiei kontaktuan jartzeko gobernu lehen bait-lehen eratzeko, hori alderdien iniziatiba bat izan behar da.
- Mami politikoa duen egintza dela esaten dute batzuk, baina erregea kontuz bideratu behar duena, zeren eta arriskua baitu Kongresuak bere hautagaia gaitzesteko eta horren ondorioz monarkiaren irudiaren hondamena eman daiteke. Alderdi politikoen alde politikoa egiteko arduradunak dira eta Erregeak hauek erabakitako xedapenak berrikustera bakarrik atxi behar da.
- Gobernoburua izendatzen eta kargutik kentzen du (Espainiar Konstituzioaren 62.artikulua)
- Indar armatuen buruzagi goren izatea
- Barkamena eskubideaz baliatzen da, tradizioarekin lotuta dago, historikoki datorkion lana delako. Gazteleraz "Prerogativa de gracia" deritza, indultuak ematean datza.

Era edo molde hutsezko eginkizunak:

- Ministroak izendatzea eta kargutik kentzea, gobernoburuak proposatua.
- Gobernuak (ministroyen kontseiluak), onetsitako dekretuak bideratzea.
- Gobernoburuak hala eskatzen dionean, Ministroen kontseiluko bileraren buru izatea.
- Estatuko arazoei buruz informala egotea: gobernu burua eta bera astean behin edo hamabost egunetan behin batzen dira eta lehenagoak bigarrena estatuko gauza politikotaz informatzen du.

Botere legegilearekin lotutako eginkizunak: (Espainiar Konstituzioaren 62.artikulua)

- Legeak berresten eta aldarrikatzen ditu (15 egunen epean egin beharreko eginkizuna) (Espainiar Konstituzioaren 91.artikulua)
- Gorte Nagusiak deitu eta itxi, eta hauteskundeetarako deia egin (Gobernuburuaren erabakiaren arabera, Ministroen Kontseiluak gogoeta egin eta gero) (Espainiar Konstituzioaren 62 eta 115.artikuluak)
- Erreferendumera deia egin. Konstituzioan badago gobernuko presidentek deia egin dezakeen erreferendum mota bat, kontsultiboa. Ministroen Kontseilua bati behar du baina erabakia presidentearen esku dago. Hau erregeak sinatu behar du, baina ekimena presidentearena izango da, erregea formalki berretsi beharko du nahiz eta ados ez egon.

Bestelako eginkizunak (erabat sinbolikoak): (Espainiar Konstituzioaren 65.2. artikulua)

Edukiera formalik gabeko egintzak dira, erregearen izenean egiten diren ekintza formal hutsak dira:

- Erregeak enbaxadoreak onartzen eta bidaltzen ditu; baina benetan enbaxadore bat onartzen den edo ez kanpo harremanetarako ministroak egikaritzen du. Beraz, erabat sinbolikoa da. Kasu honetan erregeak forma emango dio kanpo harremanetarako ministroaren erabakiei.
- Justizia Erregearen izenean ematen da; Epaietan ikusten da erregearen izenean ematen direla baina guztiz sinbolikoa da ; Erregeak ez baituelako zerikusirik eman den epai horrekin (Espainiar Konstituzioaren 117.artikulua)

Bortxaezintasuna da edonori edozein gauza egiteagatik edonolako erantzukizunik eskatu ahal ez izatea. Parlamentuetako kideak bortxaezinak dira emandako iritziengatik eta emandako bozkengatik. Erantzukizunik eska ez ahal izatea.

Immunitatea, auzitegien aurrean inolako erantzukizunik emateko beharra ez izatea, salbu legeak ezarritako prozedura berezi baten bitartez. Hori gertatzen da baita ere parlamentuko kideekin, parlamentuko kide bat ezin da atxilotua izan delitu gorri (delito flagrante) batengatik ez bada, eta ezin da horren aurka auzi bat aurrera eraman bere ganberak horrela ez badu onartzen.